

## Antxiñako fotografixia

# Murgialdaiko Aitta Fermin Altuberen meza barrikua

**U**rrixaren 23an bete dira 70 urte Murgixa auzoko frantziskotar oñatiar honek **meza barrixa** Arantzazun emun ebela. Orduko argazkixa dogu gaurko hau: hogeta hiru urteko fraide gaztia senidez, adiskidez eta Arantzazuko komentukidez inguratuta agerketan xaku bertan. Gehixenak familixakuak eta Murgixakuak dira, baiña beste auzo batzuetakuak eta kalekuak be badagoz. **Murgialdai bi bizitzatako baserrixa da** aspalditxotik: **Altubetarrak** dira batekuak eta **Galdostarrak** bestekuak.

**Fermin Altube** azkenadi honean Arantzazun erretirauta bizi bida be, denpora askuan Bidauaretako ospederexian egon danez, **kaletar askok ezaguketen dogu**. Sermolari moduan batera eta bestera ibili zan Euskal Herri osuan eta liburu interesgarri bat itzi dosku: **Oñatiko Murgia auzoa. Gure aurrekoak gogoratuz**, Arantzazu 1999. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue fotografixa honeta agiri diranak:



**Goixeneko illaran:** **Nikolas Markuleta Altube**, Danbolingua (Larraña); **Gillermo Bikuña Altube**, Erbiña (Larraña); **Hilarion Umerez**, Auzotxo kaleko (Martzelino Zelaia gaur egun) arda-saltzaillia; **Maria Urriz eta Matias Rodriguez Iriar** Bilboko andra-gizonak (Matias Murgialdain jaixua zan); **Joxe Ugarte**, Jargikua (Murgixa); honen aurrian **Bittori Elorza**, Santa Kruzka (Murgixa); **Tomas Galdos**, Murgialdaikua (Murgixa); **Martina Biain**, Jauregikua (Murgixa), monja; **Migel Madinagoitia**, Kortakua (Larraña); **Fermina Urzelai**, Olakua (Larraña); **Juana (X.) Araozkua**; **Julian Biain**, Umerrezkua (Murgixa); **Mari Kruz Ugarte**, Gillermo Bikuñaren andria; eta **Karmen Markuleta**, Nikolas Markuletaren emaztia.

**Bigarren illaran erdixan:** **Patxi Elorza**, Santa Kruzka, Kale Zaharreko fotografua; **Kalista Ezenarro**, Unaingua (Gariabai); **Frantziska Altube Irizar**, Murgialdakua, **Eulali alabatxua** besuetan dakola; **Kortako Modesta**, Migel Madinagoitiaren andria; **Felisa eta Maria Arantzazu Altube Irizar** ahizpak, Murgialdaikuak; **Ebarista Idigoras Irizar** Imittolakua (Olabarrieta); **Maria Luisa Galdos Urzelai**, Murgialdakua; **Teodoro Markuleta Anduaga** frantziskotarra, Lizarraldeko semia (Berezao), urte haretako San Ignazio egunian meza barrixa emundakua; eta honen anaia **Joxe Markuleta Anduaga**.

**Hirugarren illaran behian:** **Pedro Urzelai**, Amiñokua (Olabarrieta); **A. Karlos Gastesi**, sasue haretan eta geruago be Arantzazuko fraide ezaguna; **A. Arkangel Mitxelena** frantziskotarra, Arantzazuko guardiana; **Blas Altube Ugarte**, Murgialdaiko aitta; **Fermin Altube Irizar**, meza barrixa emun ebena; **Frantziska Irizar Urzelai**, Murgialdaiko ama; **A. Demetrio Garmendia**, sermolari ospetsua; **Dionisio Altube Irizar**, Murgialdaiko etxe kojaun gaztia; eta honen emaztia **Juliana Madinagoitia** araoztarra, Pilartxo alabiarekin.

**Beheko umiak:** **Bixente Urzelai**, Amiñoko artzaiña; **Juanita eta Rosarito Altube Madinagoitia**, Murgialdaiko ahizpak; **Mertxe Galdos Urzelai** Murgialdaikua, monja; eta **Kontxi Altube Madinagoitia**, Murgialdakua.

J. E.

Fotografixia Isidro Garro fraide argazkilariak ataratakua izango da, Arantzazuko oroigarrixen denda zaharraren aurrian. Guri Fermin Altubek berak eskuratu dosku, argibiderik gehixenak letxe. Milla esker.